

# Zu eta ni

*Angel Gallo Fernandez*



# Zu eta ni

*Angel Gallo Fernandez*

Julene Azpeitia 35. ipuin lehiaketa

2022

Lehen saria

2022ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Angel Gallo Fernandez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

–Zu ez zara zu –esaten dizue irakasleak–, zu eta zure ingurukoak baizik.

Ezer berririk ez, ezta? Ez zenuen espero horren aspergarria izatea filosofia, ustez gizartearentzat ezinbestekoa den irakasgai ospetsua. Entzundakoak koadernoan idazteari ere asperdura dario.

–Ba nik uste nuen ni eta nire mugikorra nintzela... –esaten du Peiok, beti bezain zorrotz.

Ingurukoek barre egiten dute. Zuk ez, agian ez duzulako ulertu, agian lo harrapatu zaituelako, agian Peio ez duzulako gogoko. Bere taldetxotik at daudenak gaizki oso tratatzen dituen norbaiten aipamenei barre egitea ez da zure estilloa.

Edo, agian, bere taldetxoan ez zaudelako ez duzu barre egiten.

Klasea amaitu eta atsedean ordua heltzen da. Eskailerak jaitsi eta kalera irteten zara, zure bi lagunekin batera. Ez dituzu lagun gehiegi eskolan, eta itxurek diote ez dizula axola, barnean larritzen zaituen zerbait izan arren. Bertako denak ezagutzen dituzu, jende asko agurtzen duzu, baina klaseko jende popularretik kanpo geratu zara, Lihurretik Peiora doan talde horretatik kanpo, beste hainbat bezala. Horrek ez zaitu gaizki sentiarazten, onartu egiten duzu eta kito. Ez zara berezia, eta ez duzu halakorik nahi: klaseko tipo arrunt bat baino ez zara. Tximinoen moduan aritzen direnengandik at egotea ez da arazo. Hobe horrela, edo hori esaten diozu zeure buruari.

Behintzat ez zaude bakarrik. Okerragoa izan zitekeen, atsedeanaldi denak bakarrik ematen dituen Keparen kasuan bezala. Nolabait zorioneko sentitu beharko zinateke. Hori bai filosofia: besteen gaitzek alaitu behar zaituzte, ederra gure gizartea.

Sara pasatzen da zure aurretik. Neska isila da, zu bezala; keinurik ez bere musuan. Begiratu egiten dizu, zerbait esan nahiko balu bezala edota zuk zerbait esan dezazula nahi izango balu bezala. Agian noizbait mugikorretik esan dizkizunak errepikatu nahi dizkizu, edo agian beste zerbait da. Zuk ez duzu ezer esaten, noski.

Bitxia da. Ez zara klaseko pertsona popularren taldekoa, ez duzu kirolari izan nahi dutenen gorputza edota jai guztietan errege izan nahi dutenen harropuzkeria eta ausardia. Zaletasun antipopularrik ere ez duzu, ez zaude bideojokoetan murgilduta, taldetxo horretakoak bezala, eta muzin egiten diezu dantza eta margo taldeei. Nabarmentzeari uko egiten diozu, argi dago.

Batxiler garaia inor konturatu gabe igaro nahiko zenukeela ematen du. Bertan egongo ez bazina bezala, klasekideek zure izate hutsa nabaritzea galarazi nahiko bazenu bezala. Sarari ez diozu jaramon egiten, eta zure inguruko klasekide gehienei ezta: ez zara mutil popularra, eta popularra izateko aukerei uko egiten diezu.

Inork ez badu zure presentzian erreparatzen, arazorik izango ez duzula pentsatzen duzu. Berdin zaizu ingurukoek zurekin egoteko ahaleginak egiten badi-tuzte: Ander eta Peruk larunbatetan geratzeko egiten dizkizuten proposamenei ez diezu kasu egiten, nahiz eta aspaldi utzi zioten proposamenak egiteari, zure erantzun faltaren aurrean.

Eta hala ere neska batek, neska eder batek, zurekin denbora pasatu nahi duela esaten dizu eta zuk uko egiten diozu. Agian ez da ederra sare sozialetara argazkiak igotzeko zentzu horretan, baina ederra da, modu berezi batean da ederra. Eta zuk ez dizkiozu mezuak erantzuten, bere proposamenei ez diezu baiezkorik esaten, bere agurrei doi-doi egiten diezu kasu.

–Hi, askotan esan diat: Sara hitaz zio! –dio Anderrek, lagunak soilik ematen dituzten ukabilkada txikietako bat tarteko.

–Earra dek ba! –jarraitzen du Peruk–. Nik ez niake ezetzik esango!

Iribarre egiten duzu, besterik ezean. Zure lagunak dira, elkarrekin pasatzen dituzue atsedenaldiak eta oporretako egun hilak; horrek lagun bilakatzen zaitu, edo? Baiezkoa erantzun zenion aspaldi zalantza horri. Horregatik, lagunak direlako, isiltzen zara eguneroko txantxen aurrean, zure isiltasunak haien iseka gogoak elikatzen dituen arren.

Eta bitartean, Sararen begiradari ez diozu jaramon egiten.

Nahiago duzu inork ez dezala zure presentzian erreparatu, zoriontasun aukerak profitatzea baino. Agian horregatik txirrinak jotzen duenean eta klasera itzuli behar duzuela dioenean, poztu egiten zara.

Behin ikasgelan, irakaslea barruan dagoenean baina klasea hasi aurreko une horretan, bip-bip egiten dute gelako mugikorrek. Ez batek edo bik, denek

baizik. Milisegundoko tarteak daude mugikor baten eta bestearen seinaleen artean, orkestra kaotiko bezain zaratatsua osatuz. Zenbait mugikorrek dardara egiten dute, orkestrari perkusioa gehitzeko ahalegina balitz bezala. Mugikor bakoitzak bere melodia du, eta kontzertu motz bezain zentzugabea osatzen dute.

Mezu bat iritsi zaie. Hori dakizu soinu laburra delako, ez dei batek sor dezakeen abesti luze batena. Mugikorra itzalita daukazu zuk, eta zuri ere heldu ote zaizun jakin nahiko zenuke.

Ondoren efektua errepikatzen da: bigarren mezu bat heldu da.

–Klasea hasi da –dio orduan fisika eta kimikako irakasleak (*fikikoa, zuretzat*)–. Badakizue mugikorrek debekatuta daudela klasea martxan dagoen bitartean. Liher, hori zuri ere aplikatzen zaizu; gorde ezazu mugikorra motxilan oraintxe bertan. Ez. Ez. Berdin zait. Orain. Bai, oraintxe bertan. Eskerrik asko.

Baina klase guztia dago aztoratuta, zu barne. Mezu bat aldi berean denei heltzea ez da ohikoa. Irakasgaia ziprztintzen duten formulek, abiadurarekin erlazioa duten formula aspergarriek ere ezin dute arreta beste inora eraman.

Peruk eta Anderrek zugana begiratu eta bizkarra altxatzen dute, ezer ulertzen ez dutela adierazi nahian-edo. Sarak ere zugana begiratzen du, zu begiratzen zaitu, zure begiei begiratzen die, baina ez diozu erantzunik eskaintzen.

Bata besteari begira, horrela zaudete denok klasean, heldutako mezua irakurtzeko irrikan. Gabonetako opariak aurkitzeko goiz esnatu den gaztetxoaren ematen duzue.

Halako batean, irakaslearen azalpenak betetzen dituzten grabitate eta bestelako azelerazioen artean, Liher ikusten duzu bere mugikorra berriro hartu duela. Mahai azpian du, irakasleak ez ikusteko moduan helduta. Zerbait klikatzen du, itxaron egiten du, gehiago itxaroten du, birritan klikatzen du, berriz sakatzen du zerbait pantailan, itxaron, sakatu, zerbait irakurtzen du, harritu aurpegia jartzen du, zuri begiratzen dizu eta, mahaiaren azpitik, bere alboan esertzen den Unairi erakusten dio mugikorraren pantaila.

Bai, ondo ikusi duzu: zugana begiratu du Liherrek. Klaseko popularrenak zuri egin dizu kasu. Ez da akats bat izan: ziu zaude zugana begiratu duela.

Baina ez duzu zergatia ulertzen edo aurkitzen. Oraindik ez zara larritzen, besteak beste gertatzen ari dena prozesatzeko aukerarik ez duzulako izan.

Unai ere begiratzen dizu, eta harridura aurpegia berbera da berarengan. Gero mugikorra Asierri pasatzen dio.

Hotzikara bat nabaritzen duzu bizkarrean. Zerbait ondo ez doala nabari dezakezu. Urduritzen zara.

Mugikorra ikusten duten guztiak harritu egiten dira, eta gehienek eskua ahora daramate. Barre maltzurren bat agertzen duenik badago, soilik min egiten duten kontuek sor dezaketen barre horietakoa. Saminaren kolorea duten irribarreak dira, eta samina zurea izango dela susmatzen hasten zara. Zorionez, ez dira asko mugikorra ikusten dutenak: Peioren eskuetara heltzen denean, ez du handik alde egiten tramankuluak.

Noski, irakasleari ez diozu jaramon egiten. Ez zara bakarra.

–Hobe duzue jarrera hobetzea –dio irakasleak–, ez baduzue nahi azterketan kale egitea... Abisua eman dizuet, hortik aurrerakoak zuen esku!

“Hobe genuke jarrera hobetzea, bai” pentsatzen duzu Liher eta Peioren irribarreak gogoan. Ez dakizu zer dakarten, baina ezer ona ez dela dioen sentipena hedatu egin da zure barnean, kantzer batek soilik egingo lukeen moduan.

Gauza bera pentsatzen duzu klasea amaitzen denean eta mundu guztia azkar asko dena jasotzen hasten denean. Batzuk aguro-aguro egiten dute ospa, baina bada arrapaladan mugikorra hartu eta jasotako mezua irakurtzera egiten duenik. Zuk ere mugikorra hartu eta komunera egiten duzu. Atzean, nonbait, apika beste planeta batean, Peio entzuten duzu ozen barrezka, bere ohiko plastikozko barre faltsuak dena betetzen duela. Peru eta Anderren isiltasuna ere entzuten duzu.

Komunean mugikorra piztu eta bi mezu heltzen zaizkizu. Jasotakoa irekitzen duzu.

“Klasekide baten egia jakin nahi?” dio lehen mezu batek. Bigarren mezuak esteka bat dakar. Pentsatu gabe esteka sakatzen duzu, eta partekatutako fitxategi-karpeta batera eramaten zaitu. Ikus ditzakezun fitxategi guztiak argazkiak dira.

Lehena irekitzen duzu.

Zeure buruari atera zenion argazki bat agertzen da. Ez daramazu kamisetarik, eta aurpegia alde batera duzu biratuta; zure logelako ispiluan ateratako argazkia da.

Juleni bidali zenion argazkia da.

Ikaratu egiten zara. Trumoi batek zure bihotza zeharkatzen du zeure burura heldu aurretik. Bihotza eta garuna uzkurту egiten zaizkizu. Dena den, oraindik

ez duzu denbora nahikoa izan ikusitakoa prozesatzeko eta benetako beldurra sentitzeko.

Ehunka argazki daudela ikusten duzu. Bat aukeratzen duzu, edozein, eta irekitzen duzu.

Julenek eta zuk izandako txat bidezko elkarrizketa baten irudia da. Zure eta bere mezuak agertzen dira.

“Ez daukat zu moduko lagunik eskolan...” idatzi zenuen. Elkarrizketa oroi dezakezu, idatzi zenuen eguna jadanik ez, horrela sentitu zinen egun asko egon baitira.

“Ba poztu zaitez ni moduko lagun bat duzulako eskolaz kanpo!” erantzuten zizun Julenek. Orduan polita iruditu zitzaizun esaldia, orain izoztuta uzten zaitu. Hitz berdinak, aurkako eraginak: zenbat on eta zenbat min egin dezakete hitz berberak egoera ezberdinetan.

Argazki gehiago irekitzen duzu, eta denek tankerakoak dakartzate: aplikazio ezberdinak erabiliz Julenek eta zuk izan dituzuen elkarrizketa pusketak dira, laguntasun baten pusketak. “Dena gaizki doanean, badakit zurekin hitz egin dezakedala” diozu batean, “zurekin hitz egitea, egun euritsu bat eta gero azken orduan eguzkia irtetearen parekoa da” bestean. Keinu arraroak egiten dizkiozu kamerari argazki batean, eta horren azpian “eguna kaka hutsa izan da. Milesker hobea egitearren” idatzi zenuen egunekoa ere aurkitzen duzu. Argazki gehienak bitxiak dira, zure gelan ateratakoak, elkarki bidalitako argazki intimoak. Ez intimoe-giak, zorionez, zu ez baitzara halakoa.

Ehunka direla pentsatu duzu, baina orain gehiago dirudite. Karpetan behera egiten duzu, eta ez dute amaierarik. Pantaila itzaltzen duzu.

Hau guztia nork ikusi ote duen kalkulatzeko dabil jadanik zeure burua. Izoztu egiten zara une batez, horren hotz zaude dardarak ere eteten dituzula. Jendea zutaz pentsatzen ariko dena kalkulatzeari ekiten diozu, tankerakoak kalkulatu ahal izango bailira.

Zure harriduratik irten eta argazkiak ezabatzen ahalegintzen zara. Ez duzu pentsatzen, soilik atzamarrak mugitzen dituzu. Begiek dardara egiten dizute, barnean sortzen ari zaizun lurrikararen ondorioz. Ez duzu ondo ikusten, eta botoiak behin eta berriz sakatu behar dituzu, atzera eta aurrera egin, okerrak zuzendu eta berriro saiatu.

Baina ez duzu lortzen, fitxategiak ezin dituzu ezabatu: ikusteko baimena duzu, argazkiak zure mugikorrera jaistekoa baita, editatzeko ez. Ezin borratu, mugitu, izena aldatu, ezin ezer egin. Okerragoa izan zitekeen, webgune batean egon zitezkeen argazkiak; baina, ondo pentsatuz gero, ezberdintasuna txikia zatekeen. Hau baino okerragorik agian ez da egongo.

Klasera itzultzen zara korrika, motxila hartzen duzu, bertako barre eta oi-huen aurrean gorrarena egiten duzu, eta handik alde egiten duzu korrika, etxera, zure etxera, zure gelara, gotorleku bilakatu nahi duzun leku horretara. Etxera heldu, logelan sartu, pertsianak jaitsi, atea itxi eta mundua ahaztu baino ez duzu nahi. Edo munduak ahaz zaitzala baino ez duzu nahi.

Anderrek eta Peruk idatziko dizute, baina ordurako zure mugikorra itzalita egongo da. Inork ezin izango du zurekin harremanetan jarri, baina mundu guztiak ikusi ahal izango ditu fitxategi horiek. Mundu guztiak ezagutuko du Julen, zure laguna, zure lagun kutuna, zure sekretua. Mundu guztiak jakingo du nola sentitzen zaren, eta zure hitzei esker izango da, soilik Julenentzat idatzi zenituen hitzei esker.

Julen haserretuko da, haserretuko zaizu, eta ez du zutaz besterik jakin nahi izango. Nahiz eta agian berak zortea izango duen: alboko herrian bizi da, beste herri horretako institutura doa, eta baliteke berriak hara ez ailegatzea.

Julen, zure lagun bakarra, ulertzen zaituen bakarra...

Negar egiten duzu. Ordu luzez, ordu amaigabez negar egiten duzula iruditzen zaizu. Birikak txiki-txiki egiten zaizkizu noizean behin, eta aire nahikoa izango ez duzula sentitzen duzu. Irtenbide ona iruditzen zaizu aire gabezia hori.

Arratsaldea pasatu da zure gurasoak etxera heldu orduko. Pertsianak behean ikusteak harritzen die, eta zure logelara doaz zuzenean. Pertsianena akats bat izan dela ohartzen zara: beraien arreta erakarri duzu keinu sinple bezain itzur-garriarekin.

–Ondo al zaude? –galdetzen dizute, erantzuna badakiten arren. Ez dute esango “zerbait gaizki doala uste dugu pertsianak jaitzita dituzulako”. Halakoak dira gurasoak, bueltak eta bueltak ematen dituzte muinera joan aurretik, oraindik edozertarako jokoak behar dituen ume moko bazina bezala.

Ez duzu erantzuten. Gezurrik ez duzulako esan nahi batetik, egia ez duzulako aitortu nahi bestetik. Zure gurasoek ere mezuak jaso ote dituzten galdetzen diozu zeure buruari, eta erantzunak berdin dizu, ondo baitakizu azkenean jasoko dituztela, nolabait helduko zaizkiela, momenturen batean irakurriko dituztela, eta



orduan epaituko dituztela, epaituko zaituztela. Beraien buruan pentsamendu bakarra egongo da: "beraz hau da gure semeak egiten duena horrenbeste ordu bere gelan gordeta ematen dituenen..." esango diote elkarri, edo "ez genion mugikor hori erosi behar", edota "mugikorrarekin ordu gutxiago igaroko balitu...", ala "kirol gehiago egin beharko luke, hori da arazoa!"

Zerbait erantzun behar duzula ulertzen duzunean, aitzakiak hasiko dira. Gezur-erdiak ("ez zait ezer gertatzen") erdi-egiekin nahastuta ("ez naiz ondo sentitzen"). Funtzionatzen du.

Hitzik esan gabe arratsalde-gaua igarotzea lortzen duzu, zure gurasoen ardurak eta isiluneak beste ezer baino ozenago entzuten dituzun arren, galderak egiteko dituzten gogoek paretak zeharkatu eta buruko mina sortuko balizkizute bezala. Afarira ez gerturatzea ere lortzen duzu, agian gose zauden arren (ez dakizu). Hurrengo goizean klasera ez joatea lortuko duzu baita, gaixorik zaudela aitzakia a hartuta.

Eta horrela eguna pasatuko da.

Ez zara leloa eta badakizu egoerak iraungitze data duela: egia ukatu dezakezu, gertatutakoari iskin egin diezaiokezu, mundua saihestu dezakezu, baina ez betirako. Ostrukaren teknikak ibilbide laburra dauka, ezin duzu burua lur azpian gorde etengabe. Noizbait arnasteko irtengo zara gainazalera, eta orduan zureak egin du. Uneren batean oinak lurrean jarri beharko dituzu, eta harrapakariak zure zain egongo dira.

Une batez hori etorkizunean gertatuko dela esaten diozu zeure buruari, eta momentuz lurraspian jarraitzea erabakitzen duzu. Pertsianak gehiago jaisten dituzu, hori posible bada.

Baina eta orduan, zer? Etorkizun hori heltzen denean, zer egingo duzu?

Beste galdera bat ere sortu zaizu, entzun eta pentsatu eta jaramon egin nahi ez diozun arren: "orduan" horretara helduko al zara? Merezi al du heltzeak?

Ideari uko egiten diozu. Trukean, egun osoa ematen duzu mugikorra piztu gabe. Juleni deitu beharko zeniokeela pasatzen zaizu burutik, baina zer esango diozu? Zure erruz mundu guztiaren aurrean barregarri geratu dela?

Ez da hori burutik pasatzen zaizun ideia bakarra; bakardadea ez da bide-lagun aproposa bidea lainoz beteta dagoenean. Lo faltak ez du laguntzen ahazten. Ez jateak, ezta. Baraurik zaude eta ezin duzu oroitu noiztik.

Bakardadeak hitz egiten dizu, eta berak esaten dizu zure herrian amildegi anitz dagoela. Irteteko aterik aurkitzen ez duzunean, amildegiek bestelako irteera mota bat eskaintzen dizute. Errazagoa, agian. Bide hori hartuz gero ez duzu zertan ikastetxekoen isekak jasan behar, ezta begirada isilak saihestu behar, ez duzu zure gurasoekin hitz egin behar, ez duzu Julenen haserrea jasan behar. Behar, behar, behar: norbaitek min eman dizu, norbaitek iraindu eta eraso egin zaitu, eta gainera zu zara eginbeharrak dituen. Ez da justua.

Amildegia bidea hartu ezean. Bide hori hartuz gero beharrik ez duzu izango; gainera, zutaz gordeko dituzten azken irudiak politagoak izango dira.

Ideiek bueltak eta bueltak ematen dituzte zeure buruan, euliek egingo luketen moduan. Bakean utz zaitzatela baino ez duzu nahi eta, hala ere, euliek gorotz-usainari bezala jarraitzen zaituzte ideiek. Eskuarekin uxatzen ahalegintzen zara, fisikoak balira bezala, benetan bertan egongo balira bezala, baina kale egiten duzu.

Eguzkirik gabeko eguna igarotzen da. Gurasoak bueltatzen dira eta haiekin batera galderak; gero bien arteko liskarra, gertatzen ari denaren aurrean zer egin ez dakite-eta, eta malko isilen bat, ozenen entzuten diren malkoak.

Nolabait, bigarren egunez ez afaltzea lortzen duzu. Mugikorra piztu eta kanpoan gertatzen dena jakiteko gogoa zapuzten duzu, koska egingo dizun suge bat balitz bezala. Juleni idatzi nahiko zenioke, bera zelan sentitzen den jakin, berari eragin ote dion galdetu. Ander eta Peruri galdetu nahi diezu klasean berari buruz zerbait esan ote duten, barre egiten ote duten, betirako seinalatua izango ote den. Baina klasea aipatze hutsak bertara itzultzeko unea irudikatzen dizu buruan, eta ezin duzu jasan.

Klasera berriro sartzen ikusten duzu zeure burua, begirada mutu eta begi salatzaile artean, keinu iraintzaile eta elkarrizketa mingarrien erdian, eta arnasbideak ixten zaizkizu. Aireak ez da zure biriketara heltzen, baina pultsua berdin-berdin azkartu egiten zaizu, zainek eztanda egin arte ponpatzen du zure bihotzak, inoiz baino indar eta hiltamu gogorrago batez zure barneak betez.

Gorputza eri nabari duzu. Sekula sendatuko ez den zerbait dela sentitzen duzu.

Eguna argitzen denean, klasera joango zarela esaten diezu gurasoei. Beraien aurpegietan zama arintzen nabaritu dezakezu, zimur bat desagertzen zaie hemen, ilea tentetu egiten zaie han, begien azpialdeak kolore beltza galtzen du,

irribarre txiki bat agertzen da. Ez dute susmatzen etxea utzi eta gero, bakardadea usaindu bezain pronto bueltatuko zarela, beraiek lanera doazenean zuk buelta eman eta etxe barruan ezkutatuko zarela berriz. Beraien ardurak tristura sentiarazi beharko lizuke, baina haien samina ezer gutxi iruditzen zaizu zurearen parean.

Eta horrela itzultzen zara zure gelara, pertsiana itxietara, argi faltara, arnas faltara, bularreko minera, dardaretara.

Inoiz amaituko ote den galdetzen diozu zeure buruari. Erantzunik ez duzu jasotzen. Ez duzu behar.

Uneak badoaz, samina gelditzen da.

Eta halako batean txirrinak jotzen du.

Noski, ez duzu irekiko, baina asaldatu egiten dizu.

Berriz jotzen du.

–Badakigu hor zaudela, ireki mesedez.

Ahots heldu bat da. Serioa bezain sakona, iluna bezain segurua. Atera gerturatu eta behatxulotik so egiten duzu.

Polizia. Bi tipo dira, uniformedunak. Diskrezioa ez da beraien punturik sendoena, ez.

Azkenean norbaitek poliziarri hots egingo dio. Noski. Hori da kasu hauetan egin beharrekoa, ezta? Salatu, erruduna bilatu, zerbait gaizki egin duena argazki-etan agertzen den pertsona ez dela erakutsi, zu ez zarela erakutsi. Erraza da hori esatea, zaila ulertzea horrek ez duela ezertarako balio. Tira, bai: suari erregaia botatzearen parekoa da. Zauriari gatza botatzearen modukoa.

Agian zure gurasoak izan dira poliziarri deitu diotenak, edota agian irakasleren batek gertatutakoaren berri izan du eta zerbait egiteko saiakera egin du. Seguruenik asmo ona izango dute egindakoa egiterakoan, baina normalean asmo onek buru gutxi izan ohi dute, eta egoera okertzea baino ez dute lortuko.

Bai, gauzek okerrera egingo dute hobera egin aurretik. Inoiz hobera egiten badute.

Berriz jotzen dute txirrina.

lhesbiderik ez duzula ohartu eta gero, irekitzea baino ez duzula ulertzen duzu. Zeure buruari begirada bat botatzen diozu eta ez duzu atsegin ikusten duzuna. Lehen aldiz ohartzen zara dutxarrik, eguzki-argirik eta jatekorik gabeko bi egunek egin dizutenaz, eta batez ere zeure buruak egin dizunaz. Dena den, polizia baino ez da, bost axola itxurak.

–Kaixo –dio irribarre lasaikorra erakutsi nahi duen batek.

–Kaixo –irteten da ahul zure eztairik, horrenbeste denbora hitz egin gabe egoteak sortzen dizun mina gaindituz. Ahoa behar baino lehorrago duzu, ahotskordek higatutako gomen zaporea dute. Olio behar duen makina zahartua da zure gorputza.

–Badakigu zer gertatu zaizun, eta zurekin hitz egin nahiko genuke.

Lagunarteko doinua darabil, nahiz eta zaila suertatzen zaizun polizia baten laguna izatea. Are gutxiago uniformea jantzita badarama: gehiago kikiltzen duenik ez dago. Gertukoa izan nahi badu, jantzi dadila pertsona normal bat bezala. Edonola, sartzen uzten diezu eta beraien aurrean esertzen zara egongelan, bikotearen galderen zain. Zure ezusterako, galderak heldu aurretik azalpenak helitzen dira.

–Lehenik eta behin, erruduna ez zarela jakinarazi nahi dizugu –doinua etorkorra da oraindik–. Bigarrena, bizitzen ari zarena eragin duen pertsonak oso gauza ankerra egin duela adierazi nahi dizugu baita, lapurtzearen edota eraso fisiko baten parekoa. Zorroztasunez epaitu eta zigortuko dugu, ziur egon.

Epaitzeak eta zigorrek zure egoera aldatuko balute bezala diote, horri esker zure anonimotasuna itzuliko balizute bezala. Hori ez da inoiz itzuliko, argi duzu.

–Oraindik ez dakigu nor egin duen –jarraitzen du–. Argazkiak gordetzeko erabilitako kontua duela gutxi sortu zen, eta den-dena VPN bidez egin da. Baina lasai, aztarnaren bat lortuko dugu; hori bai, zure mugikorra beharko genuke, informazio nola lapurtu dizun jakin ahal izateko. Programaren bat instalatuko zizuten eta hortik lortuko zuen pantailaren argazkiak ateratzea...

Buruarekin baiezkoa egiten diezu. Utziko diezu mugikorra: akaso ba al du oraindik inork ikusi ez duen zerbait? Sekreturik geratzen al zaizu? Horrela, behintzat, berau pizteko tentaldia gaindituko duzu.

–Edozein modutan –sartzen da tarteko bigarren polizia–, eskertuko genizuke susmagarriren bat izango bazenu guri jakinaraztea. Klasean norbait zurekin haserretu baldin bada –inork ez du zuegan erreparatzen, beraz nolatan haserretu zurekin?–, edota... bullying, jazarpen arazoren bat izan baduzu –herri txikia da hau, norbait pasatzen baldin bada laster hedatuko lirateke berriak–, ala bestelako ezer gogoratu badezakezu –ez duzu ezer gogoratu nahi, ahaztu baizik–, esaguzu, arren.

Esatekorik ez duzu, noski. Benetan uste dute egindakoa nork egin dizun jakin dezakezula? Areriores bat sortzeko ez duzu bizitza nahikoa; ezagutzen dituzun maltzurrek, Peiok eta Liherrak, klaseko bihurrienen hain zuzen ere, badute zure atzetik ibiltzea baina denbora-pasa hobea; Ander, Peru eta zuk osatzen duzuen kuadrilla txikiak gauza onik ez du inork esango, herriko popularrenak ez zaituzte izango, baina ez diozue inori kalte egiten eta bakean uzten zaituzte herriko maltzurrek.

Bilaketari buruzko hitz tekniko gehiago aipatzen dituzte: zerbitzari, bilatzaile, tenporala, metadatuak. Ingelesean eta siglak erabiliz esaten dituzte beste asko: cloud, VPN, ransomware. Hitz teknikoak egia estaltzeko, egoera maskaratzeko, eroso zaien zerbaitez hitz egiteko. Beti da gauza bera, ezta? Hotsandiko hitzez betetzen ditugu gure esaldiak zer esan ez dakigunean. Politikari zein irakasle, beti kontu bera.

Ziur zaude ez dutela ezer aurkituko.

–Edozertarako behar bagaituzu, hemen aurki gaitzakezu –dio bigarren polizia, eta paper zati bat uzten du mahai gainean, beraien kontaktu datuekin. Ez duzu hartzen.

“Nire bizitza itzuli diezadakezue?” galdetu nahi diezu, eta baita “posible al da bizitza berri bat hastea beste nonbaiten, hemendik urrun, ezagutzen nauen inor bizi ez den lekuren batean, filmetan bezala?”, baina ez duzu ezer esaten, horrela azkarrago joango direlakoan, zure isiltasunak ezinegona sortu eta handik aldentzeko dituelakoan.

Eta joan egiten dira.

Betirako joango dira. Ez dira itzuliko, ez baitute ezer aurkituko. Poliziek zure klasekideei galdeketaren bat egingo diete, eta hitzaldiren bat emango dute zure klasean eta herriko eskoletan, baina ez dute zuri halakorik egiteko ziorik duen inor aurkituko, ez dute gorroto zaituen inor topatuko, aztarna digital apurrek inora ez daramaten bideetara zuzenduko dituzte, eta azkenean zure kasuari kasu egiteari utziko diote, gutxika ahaztuko dute, gaur pixka bat eta bihar beste pixka bat, eta beraien buruetatik ere alde egingo du, inoiz inork ezagutu ez duen pentsamendu baten moduan galduko da betirako.

Poliziak joan eta gero, atea ixtear zauden unean, zure gurasoak agertzen dira, unearen zain egon balira bezala. Ez zenituen espero, eta horrela hobe dela iruditzen zaizu: ihesbiderik ez, ezin beraien laguntza eskaintzei uko egin, ezinezkoa

zure arazoak zure mantendu, akabo zure gelako burbuilan bizitzea. Gertatu dena badakitela ulertzen duzu, eta ondorioz gertatu dena mundu guztiak dakiela ulertzen duzu, eta mundu horrek zure sekretu guztiak ezagutzen dituela ere ulertzen duzu.

Beraien besarkadak onartu eta beraien malkoek zureak erakarri ez ditzaten borroka egiten duzu, baina isilik mantentzen zara "lasai egon, hau ez da ezer" diotenean, "dena pasako da" moduko esamolde hutsak erabiltzen dituztenean, edota "maite zaitugu" lekuz kanpo erabiltzen dutenean.

Zer pasatuko ote da? Zer ez da ezer, norentzat ez da ezer? Zergatik uste dugu norbait maitatzeak egoera bat konpondu dezakeela? Eta hala ere beraien besarkadei ez diezu iskin egiten, beraien malkoak ez dituzu lehortzen, bizkarrean ematen dizkizuten zapladen aurrean ez zara baztertzen.

"Nahi duzuna kontatu ahal diguzu" esaten dute gero, "guk beti maiteko zaitugu" baita, eta "behar duzun denbora hartu" gehitzen dute.

Gero ez dakite zer gehiago egin edo esan, eta beraien ohikoetara itzultzen dira. Bota dituzten hitzak beraien hobeto sentitzeko ez ote diren pentsatzea ezin duzu ekidin.

Laster berriro saiatuko dira zurekin hitz egiten, zelan sentitzen zaren edo nola gertatu ote den galdetuko dizute, baina ez dute jakingo elkarrizketa nola eramanez, ez zaie egoera eroso egingo, eta azkenean prefabrikatutako esamolde-tara itzuliko dira, telebistako programa bat balitz bezala. Aita zurekin geratuko da hitz egiten eta ama etxetik bueltaka hasiko da, eta gero kontrakoa egingo dute, antolatutako txandak bailira, zu prozedura baten parte bazina bezala, jarraitu beharreko urrats irmoak ematen egongo balira bezala.

Txirrinak berriz jotzeak salbatzen du egoera. Ama gerturatzen da irekitzera, eta Ander eta Peru etorri direla esaten dizu. Neurri berdinean ilusioa eta ikara sortzen dizu ezusteko bisita honek.

-Zelan hao?

galdetzen dute zure egongelako sofan eserita, eta zuk

-Ondo.

erantzuten duzu, denok gezurra dela dakizuen arren. Konpromisozko galderen aurrean, erantzun prefabrikatuak.

-Etorri hadi klasera etorri nahi duanean -jarraitzen dute-; lasai eon, inork ez dula ezer txarrera hartu.

Sinistu nahiko zenuke, baina ez duzu sinisten. Lehen aldiz ohartzen zara agian sekula ez duzula berriro inorengan konfiantza izango.

–Higatik kezkatuta gatzik.

–Hi, benetan, mundu guztiya daukak kezkauta, ez gabiltzik gezurretan!

–Ondik ez zakiagu nork ein diaken eindakoa, baina aurkituko diagu, ta ordun ikusiko dik horrek!!!

Buruarekin baiezkoa egiten duzu, eskertzen diezula azaldu nahian, horrek ezer konponduko ez duela ondo dakizun arren. Oraindik ez zaude prest ulertzeko hori dela beraiek duten modua zutaz arduratzen direla esateko. Helduko da momentu hori.

–Ta klasera ez baduk joan nahi –egiten du aurrera Peruk, dudati–, arratsalden batean bueltatxo bat emango diagu herritik.

–Bai –gehitzen du Anderrek–, ta ez diagu zertan ezertaz hitz ein bihar...

“Ez dugu zertan zure telefonoan zeuden mezuei buruz hitz egin behar” esan nahi zuen, baina ozta-ozta lortu du bere ezpainetatik halakorik ihes ez egitea. Ezertaz hitz egin ez arren, badakizu gai bakarra egongo dela klasean, kalean, etxean, herri guztian eta, okerrena, guztien buruan. Zure bizitzan egongo da gaia, orokorrean.

–Eskerrik asko –esaten duzu, eta benetan eskertzen duzu, baina proposamenari uko egiten diozu.

Hala ere, joaten direnean zertxobait hobeto sentitzen zara. Lagunek hobeto sentiarazten zaituzte. Lagunak beti daude hor, benetako lagunak beti daude hor ulertzen duzu. Benetako lagunak direla ulertzeko ere balio dizu. Orain arte agian ez zenituen inoiz horrela ikusi, baina aurrerantzean ez duzu ahaztuko.

Eta, lehen aldiz, honetaz guztiaz gauza onen bat irtengo dela sentitzen duzu. Oraindik urruti da sendabidea, baina amildegira daraman bidean kontrako noranzkoa hartu duzu.

Argitasun une horretan mugikorra poliziarri eman izanaz damutzen zara: lehen aldiz Julenekin hitz egiteko gogoz zaude, edota behintzat mezuren bat bidali ote dizun jakin nahiko zenuke. Mugikorra piztu eta idatzi ote dizun konprobatzeko indar nahiko duzula nabaritzen duzu. Azkar ulertzen duzu ez duela halakorik egingo: zure mugikorreko informazio guztia kanpoko norbaitek irakurri badezake, zer zentzu du zuri idazten edo deitzen jarraitzeak?

Azken pentsamendu horiek zure gogoan orbeltzen dute beste behin, eta tristuraren mundura erortzen zara. Baina, laburki izan bada ere, ilusioaren eta alaitasunaren larre berdeak dastatu dituzu berriro. Ekaitza amaitzen ari dela dioen lehen urdin-gunea ikusi berri duzu. Bidea luzea da, baina helduko zara.

Une horretan, agerikoa da: zorionekoa zara.

Oraindik ez dakizu, baina zorionekoa zara zu.

Lagunak dituzu. Zugatik arduratzen diren eta momenturik baxuenetan ere zugandik urruntzen ez diren lagunak eta senitartea duzu.

Jendeak azkar ahazten ditu gertaera bitxi hauek, informazio-kontsumo ezin handiagoa den gure garaietan. Laster gertatuko da beste zerbait, eta herri guztia egongo da beste zerbait horren inguruan txutxu-mutxuka, eta zure istorioa ahaztuko dute.

Txikia da zure herria baina ez zaude bakarrik: Julenek zure arazo berdina du, eta ulertuko zaitu, eta gertatu daitekeen guztiak batu egingo zaituzte. Zure lagunaren sostengua ez zaizu faltako. Benetako lagunak egiteko unea izango da. Benetako lagunak ezagutzeko unea izango da.

Herri txiki batean bizi zara, baina herri txikiak jadanik ez daude behinola bezain isolatuta. Sareek eta telesailak eta blogak eta bestelako askok mundua gerturatzen dute, eta munduko ideiak ekartzen dituzte ate ireki batek inoiz egingo lukeena baino azkarrago, eta zure erlazioarena ez da aparteko ezer izango.

Noizean behin norbaitek gaizki begiratuko zaitu, edo irainduko zaitu, edo zutaz gaizki-esaka arituko da, edota ez du zugana gerturatu nahi izango. Normala da: beti dago leloren bat. Gizakiak onak gara besteon akatsak ikusten, ez horrenbeste geure buruarenak. Eta akatsak edonon daude, are gehiago sare sozialek urruneko perfekzioak baino erakusten ez dizkiguten garaiotan: ez zara behar bezain altua, ez zaude behar bezain argala, argal zaude baina ez beharrezkoa den ataletan, azala ilunegi duzu, azala argiegi duzu, oreztaz josia zaude, ez dituzu abdominalak behar bezala nabarmenduta, ile gutxiegi duzu, ile gehiegi duzu, sudurra ez duzu erabat zuzena... Joko horrek ez du amaierarik, eta zu joko horren beste fitxa bat baino ez zara izango denborarekin.

Eta bidean, ikasi egingo duzu: sare sozialetako intxaurrak hamalau, gerturatu eta...

Gainera, ez zara geldi egongo. Unibertsitatara joango zara laster, eta lagun berriak egingo dituzu, eta lana aurkituko duzu beste nonbaiten, eta akaso



beste herri batean biziko zara, eta zaletasun berriak izango dituzu, eta batez ere mugituko zara, ez zara geldi egongo. Ez zara herri txiki honi ainguratuta biziko, are gutxiago gertaera honek aingura mozteko balioko dizunean.

Eta ahaztuko duzu. Gertakaria gertatzen den unetik bertatik ahazten hasiko zara; ez dakizu noiz amaituko den prozesua, baina ahaztuko duzu. Denbora beharko du, denbora luzea, eta bidea kurbaz eta bidegurutzez osatuta egongo da, baina ahaztuko duzu. Egunen batean ohetik altxatuko zara eta ezerk ez dizu arduratuko. Lasai biziko zara, zeure buruarekin eta zure ingurukoekin eta zure bizi-tzarekin eroso.

Eta zoriontsu izango zara. Zoriontsu eta zorioneko.

Zorionekoa zu, ahaztuko duzulako.

Nik ez bezala.

Gaizki esanak baino, gaizki eginak baitira ahazteko zailak. Ezer esan gabe begiratzen zintuen neska ederrak (agian ez zen ederra sare sozialetara argazkiak igotzeko modu horretan, baina ederra zen, modu berezi batean zen ederra), neska hark ez du egindakoa ahaztuko. Egindakoa eta aitortu gabekoaren erruaren eta damuaren artean biziko da beti, karma kosmiko amaigabea balitz bezala.

Zurekin haserretu zelako, jaramon egiten ez zeniola aitzakia hartuta zurekin haserretu zelako, zure mugikorrean sartu eta kasu ez egitearen arrazoia jakin zue-nean haserretu zelako, eta zure intimitatea lapurtu eta informazioa modu anoni-moan partekatu zuelako, errudun sentituko da betirako. Zer nolako pertsona den jakingo du une horretatik aurrera. Barkamenik eskatzeko adorea ez duela ikasiko du.

Eta ez da inoiz zoriontsua izango, zu ez bezala.

Zugatik poztuko da neska hori, behintzat. Zoriontsu izatea lortzen duzulako poztuko da.

Bai, zugatik poztuko naiz.